

jasten yakon zerua, bere odei ergel ta ostarku pello kamutsez jolasteko. Aregan iñoiz ezer ez difioen eta sekula zirkiñik ez dagien guzti orreik, bere leioraiflo datoz txirristaka ta tutu-muxu ipuiflak eralgi oi dautsoez ; bai ta zur-azpilletan opatu be margo aberatsezko jostailluak.

Egin al ba'neu nik ene aurraren pentsamenak zearkatzen dauan bide ori, bere muga guztietatik urtenda, mandatari ez-ezagunak kondaira bako erregeen aginterrietan zentzun bageko mezuak ekarri ta eroan dabilzan lekuraiño joan ; ots, errazoiak bere legeakaz upeltxoak egin ta aizetara jaurtzen dauzan lekuraiño ; egiak egitadeai euren kateak kentzen dautsiezana tokiraiño !

9

NOIZ ETA ZEGAITIK

Kolorezko jostailluak dakartzudazanean, ene seme, orduan konturatzen naz zergaitik dan ainbeste margo-joku odei-uretan, eta lorak zergaitik dagozan ain dizditsu j n fzita... Kolorezko jostailluak dakartzudazanean, ene seme.

Kanta kantari diardudanean, ene maite, zuk dantzatzeko, orduan digart nik orriak zergaitik bizi diran eresi uts, eta olatuak zergaitik doazan kanta ta kanta lurraren biotz arrigarriraiño... Kanta kantari diardudanean, ene maite, zuk dantzatzeko.

Zure esku ase-eziñok, ene seme, nik gozokiz betetean, orduan bai dakidala zergaitik dagoan ez-tiz gaiñezka lore-muiña, eta igaliak zergaitik as-tuntzen diran, ixil-ixilik, gurin samur ezkotsuz... Zure esku ase-eziñok, ene serne, nik gozokiz be-tetean.

Zure arpegia mosukatzen dodanean, ene rnaite, zure ezpanak irribarrez loratzeko, orduan dakit zein dan goiz-argian zerutik darion atsegiña, ta uda-aizeak nire gorputzari dakartsoen gozota-suna... Zure arpegia mosukatzen dodanean, ene maite, zure ezpanak irribarrez loratzeko.

IO

IZEN TXARRA

Ez egizu, ene seme, negarrik egin. Oker gaiz-toak dira nunbait, beti, errazoi barik, agirika daukazuzanak ! Zikifia deitzen dautzue, idazten zengozanean atzamarrak eta arpegia tintaz orbandu zenduzalako? Eta ez dira lotsa? Illargi barriari, arek bere arpegia tintaz baltzitu daualako, zikiña deitzen azartuko ete litzakez ?

Ene seme, edozertxogaitik errudun egiten zaitue. Bai, zure edozer txarto deritxoe. Jantzitxoa urratu dozula, jolasketan ? Eta origaitik, urratzaille deituko dautzue? Eta ez dira lotsatzen? Udazkeneko goizagaitik, zer esango ete leukie, ba, a odei urratu ostetik irri-barreka daukagunean ?